## **ZER** DA?

- **Familia-egoerak auzitara eraman gabe konpontzeko Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen zerbitzua.**
- Doakoa da, eta hura jasotzea borondatezkoa.
- Bitartekaritza-lana familiaren eta bikotearen inguruan garatzen da.
- **Diziplina anitzeko familia-bitartekariek osatzen dute lan-taldea** (arlo sozial, psikologiko eta juridikokoak).
- **Informazio gehiagorako:**
  **www.euskadi.eus/familiabitartekaritza**

## **ZER ESKAINTZEN** DU?

- Informazio juridikoa, psikologikoa eta soziala, **bitartekaritzaren barruan.**
- Esparru neutral bat, **familia-egoeraz** edo bikote-egoeraz hitz egiteko.
- Helburua da familia-gatazkei aurre egiten laguntzea eta haiei buruzko komunikazioa erraztea.
- Adostutako konponbideak bilatzen laguntzen du.
- Prozesuak kostu emozionala eta gatazka gainditzeko denbora gutxitzen du, familia-harremanak auzitara eramatea saihesteaz gain.

## **NORENTZAT** DA?

Familia egoera gatazkatsua bizitzen ari direnentzat:

- Harremanaren edo/eta apurtzeko erabakiaren ondorioz gatazka egoeran dauden bikoteentzat (banatu edo dibortziatu aurretik, zein harremana apurtu ondoren).
- Bizikidetzaren ondorioz desadostasunak dituzten familientzat:
  - Adinekoak edo besteen laguntza behar duten pertsonen zaintza.
  - Belaunaldien arteko gatazkak.
  - Familia-harrerarekin lotutako egoerak.
  - Jaraunspenaren ondorioz edo familia-negozioen ondorioz sortutako gatazkak.

FAMILIA BITARTEKARITZAKO ZERBITZUA
SERVICIO DE MEDIACIÓN FAMILIAR




## **NON** GAUDE?

www.euskadi.eus/familiabitartekaritza

**Argitaraldia:** 1.a, 2018ko azaroa / **Ale-kopurua:** 15.000 / © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila / **Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia- Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco / **Inprimaketa:** Gráficas Dosbi, S.L. / **L.G.:** VI 814-2018




EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES